

6. BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure enpresa eta bezeroekiko harremana web-aplikazio bidez izango da eta honekin lotuta, automatizatutako eta baita pertsonalizatutako zerbitzuak ere eskainiko ditugu.

- **Automatizatutako zerbitzua:** plataforma honetan ikasgai guztietako materiala igoko dugu eta ikasleek online bidez haien klase presentzialetan ematen dutena argitzeko edota sakontzeko asmoarekin web gune honetan sartzeko aukera izango dute bakoitzak behar duena lortzeko.
- **Pertsonalizatua:** igotako material guztia ikasle guztientzat berdina izan arren, ikasle bakoitzak bere beharrak asetzeko behar duen materiala eskura izango du, hau, VIP ikasleen kasua izango litzateke, hauek galderak egiteko aukera dutenez, beraiei egokitutako erantzuna jaso ahal izango dutelako.

Bezero edota kontsumitzaile berriak **lortzeko** eta hauei **eusteko**, hainbat eskaintza egingo ditugu eta honen ondorioz, ikasleek urtean behin eskaintza bat izango dute eskuragarri, hain zuzen ere, **3x2** izango da aukera hori . Eskaintza hau, urtearen hasieran emango dugu eta ikasleek noiz erabili aukeratuko dute eta modu honetan, **hilabete bat dohain** aterako zaie. Horrez gain, **aste bat** ere **dohain** izango dute, plataforma nola erabiltzen den eta zein eskaintzak dituen probatzeko. Gainera, **zerbitzu pertsonalizatuagoa** eskainiko diegu, foruan sartzeko eskubidea izateaz gain, edozein galdera egiteko aukera izango dute hilbatero euro bat gehiago ordaintzearengatik.

Edozein galdera egiteko aukera izango dute 5 puntuetara iristean, hau da, ikasleek bost lan desberdin igotzean (lan bakoitzarengatik 1 puntu lortuko dute) 5 puntu irabaziko dute eta horren ondorioz, VIP izatera igaroko dira hilabete batez. Beraz, honi esker, galdera pertsonalatuak egin ditzakete.

Beraz, azaldu dugun moduan konbinazio bat egitea erabaki dugu: zerbitzu automatizatua webgunearen bitartez, bezeroek beren beharren arabera materiala lortu dezaten toki fisiko batera joan behar izan gabe, eta bestetik, bezeroen zalantzak argitzeko beraien arretarako zerbitzu pertsonalizatua.

